



Arartekoaren 2017R-1192-17 Ebazpena, 2017ko irailaren 7koa. Horren bidez, Mundakako Udalari gomendatzen zaio Larrinaga jauregian eta haren inguruan aurreikusi diren hirigintzako jardueren gaineko hirigintzako informazioa eskuratzeko eskaeraren gaitzespena berrikus dezan.

Aurrekariak

- Zain Dezagun Urdaibai auzo elkarteak Arartekoari jakinarazi zion Mundakako Udalak ez ziola erantzunik eman Larrinaga jauregia izenarekin ezaguna den eraikina babesteari lotutako agiri jakin batzuk ikusteko eskaera bati.

Kexan azaldu duenez, Larrinaga jauregiko eta bertako eranskinen gaineko obra espedienteari buruzko hirigintzako informazioa eskatu zuen 2017ko otsailaren 13an. Zehazki, honako hauei buruzko informazioa eskatu zuen: izapidetutako hirigintzako espedienteak, Larrinaga jauregia kultura ondasuna babesteko araubidearen gaineko txostenak, egindako hirigintza diziplinako jarduketak eta haien izapidetzearen arduradunak identifikatzea.

Bestalde, 2017ko otsailaren 15ean adostutako eraisteko obrak eteteko eskatu duela aipatu du, ondarearen eta hirigintzako legezketasunaren defentsarako ekintza publikoa gauzatuz, baita dagozkion txostenak igortzeko ere, egindako ondasun historikoak behar bezala babesteko xedearekin, Larrinaga jauregia nahiz "Casa de la Guardesa" (Etxezainaren Etxea) izenez ezagutzen dena aipatuz.

Elkarteak azaldu duenez, orain arte gai horri buruz eskatutako dokumentaziorik ezin izan du eskuratu.

- 2017ko maiatzaren 18an, Arartekoak Mundakako Udalari aipatutako eskaerari lotuta kexagileei emandako erantzunari buruzko informazioa eskatu zion.
- 2017ko uztailaren 7an, Arartekoak Mundakako alkatearen txosten bat jaso zuen. Haren bidez, egindako eskaerari lotuta abiarazitako jardueren berri eman zigan. Hauxe da elkarteari ez erantzuteko arrazoia *"se trata de una solicitud totalmente genérica y no concreta, ya que la solicitud de documentos en pdf planteada, puede abarcar a la parte del Plan General que guarda relación con el Palacio Larrinaga, al definir el ámbito de Actuación Integrada AIE HT06 (PALACIO*





LARRINAGA), al PAU, al proyecto de reparcelación, al proyecto de urbanización o a las licencias de derribo ya concedidas".

Modu berean, txostenean azaltzen da elkarteak eskatutako dokumentazioa ikusteko aukera izan duela, justizia administrazioak bideratu dituen jarduera judicial batzuen bitartez. Hala, aditzera eman du Mundakako Udalak Sarrua 1 eraisteko lizentzia espedientearen kopia igorri duela Gernikako instrukzio-epaitegira eta bertan ageri da elkartea alderdietako bat zela, hortaz, ondorioztatu zuen eskuratzeko aukera ematen ari zela.

Bestalde, argudiatu du informazio eskaeraren barruan existitzen ez diren agiriak zeudela, izan ere, Larrinaga jauregia edo inguruko higiezinak ez dira Eusko Jaurjaritzaren babespean dauden ondasun kultural gisa kalifikatu.

Edonola ere, 2017ko maiatzaren 31n elkarteari bidalitako erantzuna aipatu du. Bertan, Sarrua kaleko 1. zenbakian dagoen etxea eraisteko obrak kautelaz eteteko eskaerari erantzun zitzaion. Ebazpenak gaitzetsi ditu eraisteko obra gelditzea zein txostenak ikusteko eskaera. Kasu horretan ebazpenak dio eskaera ez dela zehatza, ezta koherentea ere, lizentziak hizpide duen higiezina ez dagoelako babestuta Euskal Kultura Ondarearen Legearen arabera. Hori dela eta, udalak uste du lizentzia bidez baimendu diren eraisteko jarduerak hirigintzako legezkotasunarekin bat datozela eta, hortaz, ez direla bertan behera utzi behar.

Azkenik, Mundakako Udalak agiriak ikusteko eskaerarentzako berariazko ebazpena aditzera eman du. Ekainaren 14ko 224/2017 Dekretuak Larrinaga jauregiari lotutako kudeaketa eta obren proiektuak eskuratzeko eskaera gaitzetsi du eskaera generikoa dela argudiatuz. Horrez gain, Larrinaga jauregiaren eta haren ingurunearen kultura ondasun babestua zaintzeko txostenak ikusteko eskubidea ukatu du ez dagoelako horrelako dokumentaziorik. Edonola ere, udalak espedientearen dauden agiriak ikusteko eskubidea onetsi du, Larrinaga jauregirako eman diren gauzatze aginduei dagokienez.

Kexa hau ikusita, haren planteamendua eta udalak igorritako informazioa aztertu ondoren, Arartekoari egokia iruditzen zaio honako gogoeta hauek helaraztea:





Gogoetak

1. Oro har, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera araututa daude espediente eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskaerak.

Artikulu horrek, zehazki, honako eskubide hau aitortzen die herritarrei: *"Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera"*.

Mahai gainean jarritako eskaerak hirigintzari buruzko informazioa eskuratzearen gaia jorratzen badu, zehaztu beharra dago Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5. artikuluan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 9. artikuluan dagoela jasota eskubide hori.

Dokumentazioa eskuratzeko eskubide hori baliatzeari dagokionez, osagarri diren bi mekanismoren bidez gauza daiteke: udal plangintza edo beste administrazio-egintza batzuk materialki eta zuzenean aztertuz edo, bestela, hautatutako komunikabidearen bidez informazio zuzena bidaltzeko eskatuz. Era berean, informazioa eskuratzeko eskubideak berekin dakar plan horiek osatzen dituzten dokumentuen kopia eskuratu ahal izatea, baita izapidetzen ari diren hirigintza arloko espedientei loturiko dokumentuen kopia jasotzeko aukera izatea ere.

2. Beraz, 19/2013 Legea da informazio publikoa eskuratzeko prozedura arautzen duena. Arau horrek administrazioaren esku dauden eduki edo agiriak eta bere eginkizunak betez egin edo eskuratu direnak jotzen ditu informazio publikotzat.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatu ahal izatea errazte aldera, administrazio-legeriak prozedura azkarra ezartzen du, erantzuteko epe laburra duena.

Adierazi beharra dago eskaerei berariaz erantzun behar zaiela. Hala, informazioa eskuratzeko aukera onartu edo ukatzen duen ebazpena, gehienez ere, hilabeteko epean jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, ebazteko eskuduna den organoak eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita.



Interesdunak eskaera aurkeztu dion administrazioak du, lehen batean, dokumentazioa aurkezteko eginbeharra. Ezin da administrazioa aipatutako eginbeharra betetzetik salbuetsi esanez informazio hori beste administrazio batzuen esku ere badagoela. Era berean, ezin da arrazoi hau erabili eskaerak ukatzeko edo horiei ez erantzuteko: balitekeela organo judizial batek informazio hori bidali izana; izan ere, besteak beste, prozesu judizialeetatik eta benetako babes judizialeatik eratorritako araei jarraiki eskuratu ahal izango da informazioa.

3. Informazioa eskuratzeko mugei dagokienez, 19/2013 Legearen 18. artikulua ezarritakoaren arabera, eskaera ez onartzeko arrazoietako bat da informazioa eskuratzeko eskaerak honelakoak izatea: *"Argi eta garbi errepikakorrak direnak edo neurritz kanpokoak direnak"*.

Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordeak interpretazio irizpide bat ezarri du –CI/3/2016 Ebazpenean– informazioa neurritz kanpoko delat jotzeko. Ebazpen horren arabera, eskaera bat neurritz kanpoko delat-eta hura ukatzea justifikatuta egon dadin, eskaerak, kualitatiboki neurritz kanpoko izateaz gain, gardentasunari buruzko araudiak ezarritako xedearen (arduradun politikoen jarduna, erabaki publikoak hartzeko modua aztertzea) kontrakoa izan behar du.

Beraz, informazioa eskuratzeko eskubidea mugatze aldera, administrazioak argudio kualitatibo bat erabili ordez, honako hau balia dezake: eskatutako informazioa gardentasun printzipioaren defentsari lotutako interes publikoaren aurkakoa dela.

Alde horretatik, administrazioarekiko auzien Bilboko 4. epaitegiak martxoaren 3an emandako 74/2006 Epaia aipatu behar dugu –JUR 2006/210115–. Epaitegiak uste du lurzoru urbanizaezin batean azken bost urteetan emandako hirigintza lizentziei buruzko informazio eskabide bat ez dela abusuzko eskabidea; izan ere, epealdi jakin bat zehaztu da, eta lizentziak hain ugariak ez diren lurzoru mota bati buruzkoa da eskabidea.

Kasu honetan, aintzat hartu behar dugu interesdunak hirigintza arloko dokumentazioa eskatu duela, horri lotuta ekintza publikoa burutu dela, eta eskaera hirigintza eremu jakin bati buruzkoa dela.

Hori dela eta, elkarrekin egindako eskaera ezin da neurritz kanpokotzat edo generikotzat hartu hirigintza eremu bakarra aipatzen delako, Larrinaga jauregia; han hirigintza kudeaketari lotutako jardun jakin batzuk burutzea erabaki da, eta



udalak arazorik gabe identifikatu ditu horiek (Plan Orokorrean sartutako AIE-HTO6 Larrinaga jauregia jarduketa integratuko eremua, hirigintzako jarduketa-programa, birpartzelazio proiektua, urbanizazio proiektua eta onartutako eraisteko lizentziak).

4. Aldi berean, eskaera generikotzat hartuko balitz ere, eskatutako informazioa behar bezala identifikatu edo zehaztu ez dela-eta, administrazioak administrazio prozedurak ezarritakoaren arabera jardun beharko luke eskaera zuzentzeko.

19/2013 Legearen 19.2. artikulua honako hau ezartzen du: *“Eskabidean ez denean behar bezala identifikatzen informazioa, eskaera-egileari eskatuko zaio zehaztu dezala hamar eguneko epean, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egiten duela ulertuko dela eta ebazpena emateko epea eten egiten dela”.*

Are gehiago, administrazioa saiatu behar da kexagileari bere eskubideak erabil ditzan laguntzen; kasu honetan, eskabidea formalizatzeari lotuta daude eskubide horiek. Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. f) artikulua (lehen Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. g) artikulua) ezartzen du interesdunek eskubidea dutela informazioa eta orientazioa eskuratzeko indarrean dauden xedapenek egin nahi diren eskaerei ezartzen dizkieten betekizun juridiko edo teknikoaren inguruan, kasu honetan, dokumentazioa eskuratzeko administrazio prozeduraren inguruan.

Horrenbestez, interesdunak informazioa eskuratzeko eskubidea gauzatu nahi duenez, administrazioak honela lagundu behar dio: Larrinaga jauregiaren eta bere ingurunearen toki babeserako araubideari lotuta zer dokumentazio dagoen jakinarazi behar dio kexagileari, eta, horrez gain, azaldu behar dio hirigintza arloko zer jarduketa onartu diren edo izapidetzen ari diren AIE-HTO6 (Larrinaga jauregia) jarduketa integratuko eremua garatze aldera.

5. Nolanahi ere, udaletxearen esku dagoen informazioa eskuratzeko aukera bazter utzi gabe, gogoan izan behar da herri-administrazioek arin, biziki eta eraginkortasunez berariazko erantzuna eman behar dietela interesdunek egindako eskaera guztiei, behin betiko ebazpena eman arte edo espedientea itxi arte.

Esku artean dugun kasuan, herritarrek administrazio onerako duten eskubidearen ondoriozko betebeharrak honela zehaztu daitezke: eskaera jaso izanaren agiria





bidaltzeko, eskaera eremu horretan eskumena duten arloari edo arloei igortzeko eta, azkenik, egindako eskaerari zentzuzko epean (gehienez ere, hilabeteko epean) erantzuteko betebeharrak.

Gainera, gogorazi behar dugu, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua autonomia erkidego bakoitzean eskuduna den Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordeari erreklamazio bat jartzeko aukera ezarri duela. Erreklamazio hori informazioa eskuratzeari lotutako berariazko edo ustezko ebazpen ororen aurka jarri ahal izango da, administrazio-auzien bidetik aurkaratu aurretik.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, informazio publikoa eskuratzeko Euskal Batzordearen 128/2016 Dekretuak ezartzen duenez, batzorde horri dagokio aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta toki erakundeak barnean dauden herri-administrazioen edo euskal sektore publikoko gainerako erakundeak berariazko edo ustezko ukapenei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten du, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, erakunde hau sortu eta arautzekoak, 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak ekainaren 14ko 224/2017 Dekretua berrikus dezan gomendatzen dio Mundakako Udalari. Izan ere, Larrinaga jauregian eta haren inguruan burututako hirigintza arloko jardueri buruzko informazioa eskuratzeko aukera ukatu egin du udal horrek.

Mundakako Udalak beste ebazpen bat eman behar du lehenbailehen, eta, horren bitartez, kexa aurkeztu duen elkarteari honako hau helarazi behar dio: AIE-HT06 (Larrinaga jauregia) jarduketa integratuko eremua garatze aldera onartu diren edo izapidetzen ari diren jarduketari eta Larrinaga jauregiari eta haren inguruari eragin dieten jarduketari lotuta eskura duen dokumentazioa.

Gogorazi nahi dugu hirigintzari buruzko informazio-eskaerak azkar, lehenasunez eta 19/2013 Legean aurreikusitako epeetan izapidetu eta ebatzi behar direla.





Halaber, dokumentazio publikoa eskuratzeko eskaerei lotuta emandako berriazko edo ustezko ebazpenen aurka Informazio Publikoa Eskuratzeko Euskal Batzordean errekurtsoak jartzeko bideak jakinarazi behar ditu udalak.

